


ezagutzen al duzu Donostia?

Mundaitz

Mundaitz izenarekin ezagutzen dugun ingurua Egia auzo zaharreko parte da. Garai batean gaur baino eremu zabalagoa zen; Uru-mea ibaiaren («*Amarako erriyua*» deitzen zioten gure zaharrek ibai honi) desbideratzearekin hartu zuen gaur duen itxura.

Mundaitzen parke eder bat eta zenbait ikastetxe daude. Ibaia desbideratu baino lehen ba omen ziren leku zinez ederrak inguru hauetan. Egiatik baserri-arrak gaur parkea dagoen lekutik joaten omen ziren erriberetako alorretara. Egiako aiton adintsu batek kontatu zidan leku honetatik beldurrez pasatzen zirela, bertako nagusia zen Mandasko Dukeak (Fermin Lasala Collado izenekoa) ez baitzien beraien gurdiekin pasatzen uzten, horretarako hesiz eta alambrez herribidea



Pio XII.ren Plaza eta Astoria zinema. Hemen zegoen «Kolkene».

estutzea agindu zuela jaun honek, auzotarrekin izugarriko iskanbilak sortuz.

Aipatu erriberetan zituzten Egiako baserri-arrak baratzak, eta erremediorik gabe *Lasalene* edo *Kristinaneatik* pasa behar!

«Estuasun» hau igaro ondoren Egiakoak ziren baserri hauek zeuden: *Mundaitz* (telleri eta baserri zena), *Errotatxiki* (marea-errota eta sagardotegi entzuna zena), *Etxeberri* edo *Naparrene* (baserria) eta *Kalkene* edo

Mundaitzeko ikastetxeak eta parkea.

Presaburu (baserria).

Azken honen «*Kolkene*» izena -edo izengoitia-, kontatu izan didatenez, berezia da. Dirudienez, baserri honetako etxeko jauna asko arduratzen zen bere seme alabez, oso etxekoia zen eta ez zen inoiz lagunekin parrandan ibiltzen. Hortik zetozen etxe honi buruzko esaera hauek: «*Kolkenen, aita kolka eta seme-alabak txituak*». Oroitzapenetan gelditu dira baserri-etxe eta urbazter eder haiek. Gaur, *Kolkene* zegoen lekuan, Antso Jakitunaren hiribidean dagoen Astoria zinemaren eraikuntza dago.

JOSU TELLABIDE

ALAI TSU

BIDAI AK

ASTE SANTUA

- LANDAK, 18.500 pezeta (bi pertsonentzat apartamentua, 5 gau)
- LONDRES, 63.900 pezeta (martxoaren 27tik 31ra, hegazkina Bilbotik, hotela, gosaria, aseguru eta leku aldaketak)
- PRAGA, 69.900 pezeta (martxoaren 26tik 31ra, hegazkina Bilbotik, hotela, aseguru eta leku aldaketak)

ASTE SANTURAKO ZIRKUITUAK

Martxoaren 26tik 31ra: autobusa, hotela eta ibilaldiak

- GALIZIA, 20.500 pezeta (mantenu osoa)
- COSTA DEL SOL-GRANADA, 26.700 pezeta (mantenu osoa)
- SEVILLA-RUTA COLOMBINA, 29.500 pezeta (mantenu osoa)
- EXTREMADURA, 35.900 pezeta (mantenu osoa)
- PORTUGAL, 29.900 pezeta (mantenu erdia)
- PARIS, 29.500 pezeta (hotela eta gosaria)

BAZKO ASTEA (martxoaren 31tik apirilaren 26ra)

- SALOU, 9.900 pezeta pertsona bakoitzeko (autobusa, apartamentua eta aseguru, 7 egun) PORT AVENTURA galdetu.
- COSTA DEL SOL-ANDALUCIA, 19.800 pezeta (autobusa, hotela, mantenu osoa eta aseguru, 7 egun)
- AMSTERDAM, 33.600 pezeta (autobusa, hotela, gosaria eta aseguru, 7 egun)
- PARIS, 26.500 pezeta (autobusa, hotela, gosaria eta aseguru, 7 egun)

BULEBAR 27

Tfnoa.: 42.73.61

Faxa: 42.52.71

Odontologia Klinika

Dr. Beobide

Medikua - Odontologoa

Ametzagaña 49

EGIA (elizaren ondoan)

Tfnoa.: 276227

OIHALAK PISURA

KILOKA

ORDENAGAILUZ EGINDAKO BORDATUAK (Inizialak, izenak, marrazkiak...)

Artetxe Jenerala D • Tfnoa.: 28 07 56